

## eIkarrizketa

**Fernando Martinez**  
TXIMELA ENPRESA TALDEA  
Administrazio eta finantzetako burua

### ❖ Zergatik erabaki du TXIMELAk euskara plana martxan jartzea?

- TXIMELA ENPRESA TALDEAK 20 urte ditu eta tamaina handikoa ez bada ere, Gipuzkoarekin sustrai sendoak ditu, Astigarraga, Beasain eta Bergara-ko herrietan egonik, euskal hiztunen portzentai handiko zonaldeak. TXIMELA osatzen duen pertsona taldeak, euskararekiko jarrera positiboa mantendu du betidanik eta gure gizarte inguruneari arlo horretan ahalegina eskaini behar diola uste du. Gure bezeroei zerbitzu guztiz euskalduna jasotzeko aukera ematea, azken finean zerbitzu hobea ematea da eta gure ohiko enpresa-helburuak lortzeko laguntza izango da.

### ❖ Aurretik ere TXIMELAn euskara bultzatzeko hainbat saiakera egin dituzue, ezta?

- Bai, halaxe da. Euskara ikastaro desberdinak izan ditugu. Euskara ikasi edota hobetu nahi duen langileari, enpresan bertan ikastaroak eskaintzen dizkiogu. Gainera, enpresako idazki, zein errotuluetan, euskara erabiltzen da eta lankideen artean euskara entzutea egunerokoa da. Egia da eguneroko presak eta buruhausteak askotan euskara erabiltzeko oztopo bat izaten dela. Horregatik, orain dela urte batzuk "ostegun euskalduna" ekintza antolatu genuen. Horrela, ostegun guztietan, ahalegin berezia egiten saiatzen gara euskararen erabileran.



“Bezeroek euskarazko zerbitzua jaso dezaten nahi dugu”

### ❖ Zer presentzia du gaur egun euskarak TXIMELAn?

- TXIMELA ENPRESA TALDEko langileen %70ek euskaraz hitz egiten du. Bezeroei harrera euskaraz egiten saiatzen gara, baita gure hornitzaileei ere (gehienak Donostialdekoak dira). Ahal izanez gero bankuekin eta administrazioekin ere euskaraz egiten dugu.

### ❖ Zer lortzea espero duzu euskara planarekin?

- EMUN bezelako erakundeek gogorarazten digute oraindik gauzak egiteke daudela. Egia da euskara TXIMELAn erabiltzen dela, baina egia da ere %70 hori %100 izan beharko lukeela. Euskal Herrian euskara da jatorrizko hizkuntza. Gure bezero batzuk zerbitzua gazteleraz jaso nahiko dute, baina zerbitzua euskaraz jaso nahi dutenek euskarazko erantzuna izan dezaten nahi dugu, enpresak bidaltzen dion publizitatetik hasi eta kontu-agirira arte.



“Ostegunetan ahalegin berezia egiten dugu euskara gehiago erabiltzeko”

## iiritzia

Secretario general de Kontseilua  
**Xabier Mendiguren Elizegi**



“Para conseguir una lengua normalizada es preciso el consenso de todos. Hasta ahora, este requisito era muy difícil de conseguir. Por eso, vemos que la situación que ha surgido tras el alto el fuego de ETA es positiva para lograr este objetivo”

## Zer da...?



### Informatika tresnak eta euskara

Gero eta gehiago dira euskaraz dauden programa informatikoak: MS Windows, Linux, OpenOffice, MS Word, MS Excel, MS Power Point, MS Outlook, Mozilla, Firefox, SAP...

Baina horiez gain, badira euskaraz idazten laguntzen duten bestelako tresna informatikoak ere: euskarako zuzentzaile ortografikoa, on-line hiztegiak, glosategi terminologikoak...

Euskara planetan tresna horiek guztiak ordenagailuetan instalatu ohi ditugu eta ikastaroak ere ematen ditugu langileek tresna horiek erabiltzen ikas dezaten.